

Hezkuntza  
eraidatuz,  
mundua  
eraidatzen  
dugu.



## TESTUINGURU BERRI BATEAN BIZI GARA

Mundua aldatzen ari da. Etengabe. Aurrez aurre hitz egitetik emoji bidez komunikatzera pasatu gara. Urtero sortzen ari dira lan mota berriak, teknologia berriak, harremanak izateko eta ikasteko era berriak...

**Mundua iraultza batean murgilduta dago.**

Eta hezkuntza egokitu behar da. Esploratu eta bere etorkizuna eraiki behar du. Horregatik Ikaskuntzarako Testuinguru Berri bat sortu dugu - ITB - pedagogia berritzaile bat, ikasleen heziketa beren talentuen garapenaren bidez bilatzen duena, beraien etorkizuna eraikitzeko gai egiten dituen.





## KONPETENTZIA BERRIEN BEHARRA

**Gure seme-alabek** ahalmen ikaragarria dute euren baitan. **Nahi dutena izatera irits daitezke.** Horretarako ordea, etorkizunak lan munduan ezetik maila pertsonalean ere eskatuko dizkien gaitasun eta konpetentzia berrietarako prestakuntza behar izango dute, baita bideratze lana eta laguntza ere.

Hori dela eta, ITBk ikaskuntza eta hobekuntza bide horretan ikasleen bidelagun izan nahi du. **Ikaskuntza kooperatiboa, sormena, ardura eta solidaritatea** oinarri dituzten metodologia berritzaileak ditu horretarako erroan sustraiturik. Etorkizuneko gure gizarteak behar izango dituen pertsonak heztea da gure erronka. Pertsona osoak, jakin-mina dutenak, elkarbizitza gauzatzeko gai direnak, autonomia pertsonala garatuz eta ekintzaileak izanik, zentzu krikikoa euren baitan landu eta ekimena hartzeko gai diren pertsonak.

**Mundua eraldatzeko gaitasuna pertsonaren formazioaren, duen jakin-minaren,** errealitatea ikusi eta hari erantzuteko duen trebeziaren, harritzeko eta ekiteko duen aukeren araberakoa da.

Filosofia honek ematen digu hezkuntza integraleko sistema hau garatzeko indarra.

## IKASKUNTZA ESPERIENTZIA BERRIAK DISEINATZEN

Gure muinean dugu formazioaren bidez **berrikuntza** bilatzeko kontua. Egiaz, hainbat berrikuntza programa abian ditugu jada gurean.

<b>ULISES</b> (Neuronen estimulazio goiztiarra)	<b>CREA</b> (Sormenaren garapena)
<b>IRATI</b> (Jakintzaren kudeaketa gauzatzeko erremintak)	<b>IRAKURKETA ERAGINKORRA</b>
<b>OPTIMIS</b> (Gaitasun intelektualaren garapena)	<b>HARA</b> (Barnetasunaren heziketa)
<b>IKASGELAREN EGITURAKETA KOOPERATIBOA</b>	

Ikaskuntzarako Testuinguru Berria La Sallen bertan sortu eta garatutako proposamen aintzindari eta berri bezala datorkigu. Bere baitan ordea, aurrez zegoenaren garapena eta gauzatzea da ziñez.

Sistema berria da, etengabeko ikerkuntzak sortua, eta hazten ari da egunez egun, erantzun eguneratuak emateko. **Ikerketaren, esperimentazioaren eta kooperazioaren** bidez ikasten da sistema

berrian, eta horretarako, hainbat proiektu egiten ditugu, pertsona bakoitzaren eta taldeen ardura era erantzukizuna lantzeko.

**Ikaskuntzarako Testuinguru Berriaren garapenean eta gauzatzean familien partaidetza ezinbestekoa da.**

**Hezkuntza komunitateko partaide denek, guraso, hezitzaile zein ikasle,** ekarpen ugari dugu elkar aberasteko, beti ere, ikaslea gure erdigunean dugula gogoan hartuz eta gure ahalegina eurentzat dela gogoraturaz.

**Gure 105 ikastetxeetako 6.000 hezitzaile baino gehiago sistema aintzindari berri honen inguruko formazioa jasotzen ari dira.**

**Irakasleek beste egiteko batzuk dituzte:** gidari dira, behatzaile, beren testigantza ematen dute eta ikasleen ondoan dira, haiekin elkarriketan. Gainera, familiarekin eta eskola elkartearekin konpartitzen dute ikasleen hazkuntza eta haien bilakaera.

## JAKINTZA OINARRITZEA, EGITEN JAKITEA ETA IZATEA

Zer egiten dugu ikasten ikasteko? Esperimentatzeko eta bizitakoa barneratzeko **tailer eta proiektu diziplinartekoak** erabiltzen ditugu. “Egiten” aritzen gara, “izatea” landu eta “jakintza” oinarritzeko. Izan ere, ez dago liburu bat irakurritz patinatzen ikasterik: arituz eta eroriz ikasten da.

**Erronka eta problemen ebazketarako formula sortzaileak bilatzen ikastea da gakoa.** Nola? Norbanakoaren ekimenaren bidez, jakin-minaren bultzatuta eta egiazko beharretara makurtuz. Beti ere, hizkuntzekin eta matematikekin harremana duten prozeduretan oinarrituta.

**Sormena eta esperientzia eramaile dituelarik, proiektuetan oinarritutako ikasketa kolaboratiboa.**

**Hezitzailea bidelagun eta jagole du ikasleak. Bere talentuak garatzeko arazoan zein zalantzen aurrean aholkua eskaintzea da bere egitekoa.**

Ikerketak eta berrikuntzak sorburu argia dute La Sallen: **gure ikasleekiko konpromisoa.** Gure ekimen guztien helburua beti izango da pertsona arduratsuak, sortzaileak, enpatikoak eta justuak heztea, barne-bizitza aberatsa dutenak eta, batik bat, mundua eraldatzeko gai direnak.